



Proposamen berriak azoka indarberritzeko eta garaiko produktuen salmenta sustatzeko

Nueva feria especial de productos de temporada el primer sábado de cada mes

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Baserritarren azoka biziberrituz
- Garaikoa eta bertakoa
- Igartza Musika programa berria
- Goiz Alzheimer

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → BKL
- Ostadar dantza taldearen "dantzalaparta"
- Igartzako jauregiaren maketa
- Garingo V. mendi lasterketa
- Emiliana Garcia Beasaingo "amonak" 102 urte
- Goiz Alzheimer aurkezpena

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Dantzan.com

OTSAILEAN BEASAINEN...

GUTUNA



**Enkarni
Arrieta**

Merkataritza eta turismo zinegotzia

BASERRITARREN AZOKA BIZIBERRITUZ

Eragin ekonomiko zein soziala du azokak Beasainen eta baserriek gure landa-paisaia mantentzen ere laguntzen dute. Guretzat ezinbestekoa da baserrien eta baserritarren etorkizuna bermatzea eta horretarako, azoka dinamizatzeko plana landu dugu ekoizle, elkarte eta herriko sukaldari ezberdinekin.

Orain artean, azokaren egoera hobetzeko eta bertako ekoizleen lana balioan jartzeko zenbait ekintza burutu ditugu: azokan berogailuak jarri, ekoizleen eta produktuen identifikazioa prestatu eta barazkien euskarazko hiztegia banatu diegu ekoizleei. Urrats bat gehiago emate aldera, aurrerantzean, hileko lehen larunbatean garaiko produktuen azoka berezia ospatuko da. Urte osoko kronograma egina dugu jada eta azoka berezi bakoitzean produktu bat hartuko da ardatz eta horren inguruko hitzaldiak, tailerrak, dastaketak, sukaldaritza saioak... antolatuko dira, bertako jateetako ostalarien laguntzarekin.

Ziur gaude egitasmo berri honek bertako zein bailarako herritarrak eta bisitariak erakarriko dituela gurera, azokaren dinamizazioarekin batera, tokiko merkataritza eta ostalaritza ere sustatuz.

Puesta en valor de los agricultores locales y sus productos

Con el objeto de concienciar a la población de la importancia que tiene la labor de los baserritarras y la calidad de sus productos en beneficio de nuestra alimentación, hemos elaborado un plan para dinamizar la feria local. Cada primer sábado del mes se celebrará la feria especial de productos de temporada con múltiples actividades como talleres, charlas, elaboración de recetas in situ... para impulsar la venta y consumo de dichos productos. Estamos seguros de que esta nueva iniciativa atraerá a muchas más personas a Beasain y por tanto, también tendrá un impacto positivo en el comercio y la hostelería local.



GARAIOKA ETA BERTAKOA DE TEMPORADA Y LOCAL

GARAIOKO PRODUKTUEN LEHEN AZOKA BEREZIA OTSAILAREN 4AN

Beasaingo azoka indartzeko, tokiko produktuak ezagutzera emateko eta garaiko produktuen kontsumoa sustatzeko, aurrerantzean, azoka bereziak ospatuko dira hileko lehen larunbatean Beasainen. Azoka bakoitzean garaiko produktu bat hautatuko da eta produktu horren inguruko hitzaldiak, tailerrak, dastaketak, sukaldaritza saioak etab. antolatuko dira.

Informazio panelak eta "Garaikoa" APParen aurkezpena


Bertako eta garaiko produktuen onurak herritarren artean ezagutzera eman eta hauen kontsumoa bultzatze aldera, halaber, azoka guztietan, informazio panelak jarriko dira eta "Garaikoa" aplikazioa aurkeztuko da, non, beasaingarrek, sasoi bakoitzeko produktu eta barazkien inguruko informazioa eta errezeta errazak eskura izango dituzten.

Paneles informativos y presentación de la APP "Garaikoa"

A su vez, para dar a conocer entre la población los beneficios de los productos locales y de temporada e impulsar su consumo, se colocarán paneles informativos en cada feria y se presentará la aplicación "Garaikoa" en la que los y las beasaingarras podrán acceder a información sobre los productos y verduras de la temporada, así como a sencillas y variadas recetas de cocina.

Kontsultatu garaiko produktua eta errezeta desberdinak

Consulta los productos de temporada y diversas recetas





NUEVAS PROPUESTAS PARA FORTALECER LA FERIA Y LA VENTA DE LOS PRODUCTOS LOCALES

El Ayuntamiento ha elaborado un Plan para fortalecer el primer sector y la feria local mediante la puesta en valor de los productos locales y del trabajo de las y los baserritarras. Para ello, además de las ferias matinales de los martes y los viernes, se llevará a cabo una feria especial el primer sábado de cada mes.

La nueva propuesta tiene como objeto, por un lado, lograr atraer a más personas, principalmente jóvenes, a la feria y por otro impulsar el consumo de los productos de temporada, poniendo de relieve, mediante campañas de sensibilización e información, los beneficios que produce su consumo en nuestra alimentación. Con ese fin, se llevarán a cabo diversas actividades; cada feria especial se centrará en un producto de temporada y se llevarán a cabo talleres, charlas, degustaciones... sobre el producto seleccionado. Asimismo, con el objeto de impulsar las relaciones entre baserritarras y cocineros locales, en algunas de estas ferias se prepararán in situ sencillas recetas con los productos de temporada.



AURTENGO IGARTZA MUSIKA PROGRAMA BERRIA AURKEZTUTA

Joan den urtean, Igartza Musika programa jarri zuen martxan Udalak herriko kultur eta musika jarduerak indartzeko helburuarekin, Igartza monumentu multzoa musikarekin lotuaz. Iazko programak arrakasta handia izan zuen eta Igartza txiki geratu zen maiz.

Ekainera bitartean 9 ekitaldi eskainiko dira eta bertako taldeak eta Igartza Musika Bekaren irabazleak izango dira ziklo berri honetako protagonista nagusiak.



GOIZ ALZHEIMER PROIEKTUAK HARRERA EZIN HOBEA IZAN DU



Bulegoan herritarrei harrera egiten duten hiru langileak.

Alzheimer gaitza garaiz atzemateko, Udalak, pertsonen ongizatea helburu hartuta gaitzaren ikerketan aurrera pausoak ematea helburu duen Goiz programa abiatu du.

Egitasmoaren aurkezpen saioen arrakastaren ondotik- 700 pertsonatik gora- dagoeneko ehundaka herritar hurbildu dira bulegora. Bulegoan lehen diagnosis edo balorazioa egiten da eta pertsonari beharrezkoa duen informazio guztia emango zaio, horretarako Urbieta eraikinean dagoen bulegora joan behar da txanda eskatzera.

Harremanetako: 943 54 12 36 | goiz@beasain.eus

URTARRILEAN BEASAINEN



BKL-k antolatutako 3x3 saskibaloia txapelketan parte hartu zuten haurrak



BKL-ren 50. urteurreneko erakusketa Igartzako jauregian



Ostadar dantza taldearen "dantzalaparta" ikuskizuna (X. Meabe)'

Igartzako jauregiaren maketa



Martin Larrañagak, Igartzako jauregiaren maketa egin zuen. Egileak Beasaingo Udalarari formalki eman dio egitura, behar bezala zaindu, mantendu eta erakusgai edukitzeko konpromisoarekin.



Emiliana Garcia Beasaingo "amonak" 102 urte bete zituen (J. Unanua)



Garingo V. mendi lasterketa (Hitza)



Lasterketako gizonezkoen podiuma: 1. Joxe Amunarriz, 2. Juanjo Igartzabal, 3. Igon Manzisidor (J. Unanua)

Goiz Alzheimer

egitasmoaren aurkezpena Usurbe antzokian



DANTZA TRADIZIONALA BEASAINEN SUSTRAITUZ



Beasaingo Udalak dantzan.com elkartearekin sinatutako hitzarmenari esker, dantza ikastaro ezberdinak antolatuko dira urtero eta Beasainen errotzen doazen euskal dantza ekimenak sendotzeko eta egonkortzeko proiektua landuko du dantzan.com elkarteak udalarekin elkarlanean. Proiektua diagnosi fasean dago momentu honetan.

Kontra-dantzen ikastaroa izan da hitzarmen honen baitan gauzatu den lehen ekimena. Egundoko arrakasta izan zuen Claude eta Jon Iruretagoiena aita-semeek emandako ikastaroak. Beasaindarrek eta inguruko herrietako dantzari eta irakasleek ez zioten muzinik egin aukerari, eta Iruñea, Gasteiz edota Lekeitio aldetik etorritako zenbait partaide ere izan zituen ikastaroak. Guztira 50 lagunek bete zuten aretoa.

Kontra-dantza sistemaren berezitasunak

Kontra-dantza izena ingelesezko country dance izenetik dator. Kontra-dantzen ustezko edota itxurazko sinpletasunetik haratago, mugimendu eta aldaera aberatseko sistema da, Euskal Herriko beste probintzietako hainbat dantzetan, oharkabea, ikus daitekeena; adibidez, txapeloaz gisa ezaguna den dantzaren oinarrian dago.

Begi bistaz, dantza sinplea badirudi ere, izenari kontrajarriaz, baditu bere zailtasunak. Aukerak, buruak eman ahala bestekoak izan daitezke dantza honi dagokionean, zenbait mugimenduren aldaerekin jolastuz, hala nola, présenter edo allemande, balancer edo chaîne anglaise, kontra-dantzen sistema hainbat dantzaren oinarrian dagoela ikus daiteke.



Aurtzaka dantza taldea Esterri d'Áneu-n (Aurtzaka)



Kontra dantzen eboluzio gisa garatu dira adibidez kadrilak, Lapurdiko eta Behe Nafarroako hainbat inauterietako dantzen bidez hedatu dira Euskal Herrian. Kontra-dantza izenez ezagunak ditugun arren ez dira gauza bera; polka izenarekin ere identifikatu izan dira sarritan erabilitako musika dela eta.

Ikastaroak iraun zituen 3 ordu horietan, giro atseginean, kontra-dantzen sistemaren oinarriak azaltzen eta irakasten ahalegindu ziren Iruretagoienatarrek, beste helbururik lortu nahi izanez gero, lanketa sakonagoa beharko lukeela aintzakotzat hartuta.

Dantzen bilakaera eta mugimenduak behar bezala besarkatzea ez da erraza izaten. Formakuntza ikastaro hauek dantza irakasleen lanketa propiorako bidea eta tarteak uztea dute helburu. Beraz, hurrengo saiora arte badute nahikoa etxekolan irakasle zein ikasleek.

BEASAIN, REFERENTE EN DANZAS TRADICIONALES VASCAS



Una de las principales apuestas del gobierno municipal liderado por el alcalde Aitor Aldasoro es promover y fortalecer las actividades culturales en Beasain.

Siendo las danzas tradicionales parte importante del patrimonio cultural, el Ayuntamiento suscribió un convenio de colaboración con dantzan.com a principios de la legislatura. Dentro de este convenio se han organizado y se seguirán organizando diversos cursos de formación para profesores y dantzaris.

El curso celebrado a finales del pasado mes de noviembre en el polideportivo Antzizar tuvo un gran éxito. En poco tiempo se completaron las plazas vacantes y acudieron a la cita, además de habitantes de Beasain y de la comarca, profesores y dantzaris de Iruña, Gasteiz y Lekeiti; por lo que se puede decir que la iniciativa está cumpliendo su principal objetivo: convertir Beasain en referente de la danza tradicional.

Asimismo, dentro del convenio, dantzan.com también elaborará un proyecto para fortalecer y estabilizar las actividades de danza ya arraigadas en Beasain. La asociación ya ha comenzado a trabajar el proyecto y prevé acabar la primera fase del mismo, es decir, el diagnóstico, en este primer trimestre del año.

Con el objetivo de explicar el diagnóstico realizado y definir junto al equipo de gobierno los pasos a seguir y el plan de acción que se llevará a cabo este año, representantes de dantzan.com y el equipo de gobierno han llevado a cabo una reunión de trabajo. En las próximas semanas, una vez de que el plan de acción para el 2017 quede totalmente definido, ambas partes darán cuenta de las acciones que llevarán a cabo este año.



KZ gunea IKASTAROAK

Urruneko formakuntza Formación a distancia

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Ofimatika orokorra <i>Ofimática general</i>	2017.02.06	4 aste 4 semanas
WordPress: zure webgunea sortu <i>Crea tu web</i>	2017.02.06	2 aste 2 semanas
Argazki ukitua Gimp erabiliz <i>Retoque fotográfico con Gimp</i>	2017.02.06	4 aste 2 semanas
Erosketa eta salmenta seguruak Internet bidez <i>Compras y ventas seguras por internet</i>	2017.02.06	2 aste 2 semanas
Skype eta Hangout bitartez bideokonferentziak <i>Videoconferencias con Skype y Hangout</i>	2017.02.06	2 aste 2 semanas

Ikastaro presentzialak Cursos presenciales

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Oinarrizko Internet <i>Internet básico</i>	2017.02.01	16h (11.00-13.00)
LibreOffice	2017.02.01	20h (18.00-20.00)
Argazki ukitua Gimp erabiliz <i>Retoque fotográfico con Gimp</i>	2017.02.01	16h (09.00-11.00)
Sare Sozialen bitartez komunikatu zaitez <i>Comunícate a través de las Redes Sociales</i>	2017.02.15	16h (18.00-20.00)
Google aplikazioak <i>Aplicaciones Google</i>	2017.02.15	16h (11.00-13.00)
Doako Antibirusa <i>Antivirus gratuito (Euskara)</i>	2017.02.27	2h (16.00-18.00)
Erosketa seguruak Interneten <i>Compras seguras por Internet</i>	2017.02.27	2h (18.00-20.00)
Ordainketa seguruak Interneten <i>Pagos seguros en Internet</i>	2017.02.28	2h (18.00-20.00)

Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus




Igartza Musika Programa

OTSAILA FEBRERO

Otsailak 19 - 19:00

Kontzertua - Itxaso Sainz de la Maza
piano-jotzailea



MARTXOA MARZO

Martxoak 3 - 19:00

"Ahotsari buruz, mitoak"
hitzaldia, David Azurza

Martxoak 5 - 19:00

David Azurza eta Ana
Otxoaren **kontzertua**

Martxoak 26 - 19:00

Goizeresi Txistulari
taldearen **kontzertua**
Zuzendaria: Joseba Ibarguren

MAIATZA MAYO

Maiatzak 12 - 19:00

Musikene Big Band
taldearen **kontzertua**

Maiatzak 24 - 19:00

Loinatz eta Narama
abesbatzen **kontzertua**

Zuzendariak

Junkal Guerrero eta
Xabier Sarasola

EKAINA JUNIO

Ekainak 11 - 19:00

Johann Sebastian Jazz
kontzertua

Iñaki Salvador eta
Alexis Delgado piano-
joltzaileen eskutik

APIRILA ABRIL

Apirilak 2 - 19:00

Igartza Musika Beka
irabazleen kontzertua
Yana Kucherova eta
Cesáreo Muñoz

Igartza Literatur Beka

Otsailak 17

17:30 Irakurle
taldea: iaz
argitaratutako
Unai Villenaren
**"Hauts
haietatik"**

19:00 Igartza sariko
liburuaren
aurkezpena:
Kattalin
Minerren
"Nola heldu naiz ni honaino"
Datorren ediziorako deialdia



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016